

Euskarazko kulturgintzaren transmisioa bermatuko duen legea

Azken hamarkadetan kultur sorkuntza zabaltzeko, transmititzeko eta gizarteratzeko moduak eraldatu egin dira: sorkuntza-testuinguru berriak sortu dira, kultur industrian eraldaketak gertatu dira, kazetaritzaren parametroak aldatu dira, hezkuntza arautuan pedagogiak berritu dira, kultur sorkuntzaren berariazko irakaskuntza murriztu da, kultur kritikaren ekarpenak sakabanatu dira, eta abar. Paradigma aldaketa honen baitan eta azken urteotako inkesta zein azterketek erakutsi dutenez, eten bat gertatu da eta gaur egun hezkuntza arautuak ez du bermatzen euskarazko kulturgintzaren transmisioa.

Testuinguru honetan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako Hezkuntza lege berri baten eztabaida mahai-gainean dagoelarik, ezinbesteko deritzogu une hau baliatzea euskarazko kulturgintzaren transmisioaren gaia lehen lerrora ekartzeko.

Egin nahi den Hezkuntza lege berriak euskarazko kulturgintzaren transmisioa bermatu behar du hezkuntza eraldatzailea lortu nahi badugu, eta, hori hala izan dadin, garrantzi handia du legeak modu esplizituan jasotzea behar hori.

Hezkuntza lege berriaren Ituna irakurri ostean, euskarazko kulturgintzaren ekosistema osatzen dugun eragileok dagokigun arduraz adierazi nahi dugu:

- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako Hezkuntza lege berriak euskarazko kulturgintzaren transmisioa bermatu behar duela.
- Euskarazko kulturgintzaren ekosistemako eragile garenok kulturgintzaren transmisioa bermatu dadin hartu beharreko neurrien proposamen, eztabaida eta adostasun prozesuan parte hartu nahi dugula.

Euskararen eta bere kulturgintzaren normalizaziorako estrategikoa da hezkuntza arautuan ere transmisioa bermatzea. Guk ardura eta prestasun osoa dugu hala izan dadin.